

WATERPOLORAKO ARAU ESPEZIFIKOAK, 2020-2021 IKASTURTERAKOAK

1. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren izena

WATERPOLOA

2. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren joko araudiak

EZ DA ARAUDIA ALDATU BEHAR

3. Kirol federazioek antolatutako txapelketetarako edo jardueretarako jarduketa arauak

1) Arau espezifiko hauek aplikagarriak dira benjamin eta alebin kategorietan eskolako waterpolo txapelketa guztietan. Haur kategorietako txapelketak federatuak dira.

1) Dagokion egutegian jasotako eskola waterpoloko txapelketa bat antolatuko duten klub guztiek eskatu beharko diote dagokion entitateari igerilekuaren ertzeko edukiera, eta jaso egin beharko dute (instalazioaren jarduera lizentzian eta autobabes planean ageri da).

2) Klubaren osasun arduradunak, epaimahai teknikoa eta mahaiko laguntzaileak igerilekura bertaratu beharko dira beroketak hasi baino gutxienez 15 minutu lehenago. Osasun arduradunak A eranskina beteko du, eta aurretik zehaztutako guztiei tenperatura hartuko die. Haietakoren batena 37° C baino gehiagokoa bada, ez zaio utziko igerilekura sartzen.

3) Klub bakoitzeko teknikariak edo ordezkariak osasun arduradunari horretarako gaitutako igerilekuko sarrerako atean B eranskina eman beharko dio, apartatu guztiak beteta, tenperaturarena izan ezik. Garraioaren laukian honako hau adieraziko da: familiako autoa, klubaren autobusa, garraio publikoa eta abar. Osasun arduradunak eranskin horretan jasoko du tenperatura. Haietakoren batena 37° C baino gehiagokoa bada, ez zaio utziko igerilekura sartzen.

4) A eranskina eta B eranskin guztiak federaziora bidaliko dira, gainerako dokumentuekin batera.

5) Partidan erabiliko den material espezifikoko guztiak (baloiak, konoak, mahaiak, aulkiak eta abar) behar bezala desinfektatu beharko dira beroketaren aurretik.

6) Taldekide guztien artean teknikaria bakarrik egon ahalko da zutik. Gainerako taldekideak esleitutako eserlekuan jarrita egon beharko dira.

7) Inor ezingo da igerilekura oinutsik sartu, eta, ahal dela, txankletak eraman beharko ditu, eta, bestela, oinetakoak babestekoak.

4. Parte hartzen duten entitateetan egin beharreko entrenamenduetarako eta saioetarako jarduketa arauak.

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten